

GEURIEN ZER? Herriko elkarteak zertan diren

OSASUN BULEGOA | Vicente

Noiz eta nola sortu zen Osasun Bulegoa?

Osasun Bulegoa 1986. urtean sortu zen. UPVn ikasketak elkarrekin egindako hainbat sendagilek asistentziarako medikuntza pribatuaren aldeko apustua egin genuen, arlo horri ez baitzitzaion behar bezain besteko atentziorik eskaintzen.

Nolakoa da euskararen erabilera Osasun Bulegoan?

Ikuspegi administratibotik, lehendabiziko aukera da euskara. Hala ere, egia da, kontsultan gaztelania nagusitzen dela.

Euskararen osasuna ona al da Bermeon?

Bermeon euskararen osasuna oso ona da. Osasuntsu dago euskara.

Zeintzuk dira sintoma txar eta onak?

Sumatzen ditugun sintomak batez ere onak dira: izan ere, bezeroek komunikatzeko aukeratzen duten lehendabiziko hizkuntza euskara da. Ahalegina egin behar da euskara hurbiltzeko, euskara ezagutzen ez dutenengana.



6. zenbakia | 2011ko uda

Margoztu gugaz euskararen mila koloreak

Euskarari mila kolore emateko elkartu ginen Geurien be bai proiektuko eragileak, Arrain Azokan antolatutako ekitaldian.



GONBITAK EGITEKO EREDUAK

Merienda

Nire laguntxoei:

Hilaren 15ean nire eguna izan zen eta hori ospatzeko txokolatada egingo dugu datorren egunean Alkartu txokoa, arratsaldeko Getan.

Etorren bazara, ondo-ondo pasatuko dugu elkarrekin

Zure lagun Ainara,

Bermeon, 2011ko ekainaren 22an

Ume jaioberria aurkeztea

Kaixo!

Maiatzaren 23an jaiotzen zaren Ainhoa dut izena.

Gurasoak Luis eta Aintzane ditut. Jaiotzean 3 kg eta 800 gr-ko pisua nuen.

Ama bitxia Amaia dut eta aita bitxia Asier.



Beñat

2011ko ekainaren 4an jaiotzen zaren arratsaldeko 15:36an 3,800 kg-ko pisuarekin.

Oso potxoloa, ona eta alaia da Amaia eta Koldo.



Nire laguntxoari:

Bihar nire urtebetetze eguna izango da eta gura dut zu nirekin egotea eta elkarrekin ondo pasatzea.

Etorri gure etxera arratsaldeko 5etan eta txokolateta jan eta elkarrekin olgetan ibiliko gara.

Bihar arte,

Ainhoa Lasa

Bermeon, 2011ko uztailaren 23an

Kiroldegia horma-irudiz apaindua

Kiroldegian eskaintzen diren ikastaroetan euskara gehiago erabiltzeko horma-irudiz apaindu ditugu gelak: giharrak, mugimenduak, aginduak... horiek guztiak euskaraz erraz esateko aholkuak izango dituzue bertan.

Bestalde, kirol-monitorean esku jarriko ditugu Interneten dauden euskarazko hainbat baliabide: material didaktikoa, fitxak, hiztegia, kartelak...

Orduan, zergatik ez izerditu euskaraz?



Fenomeno berria Bermeon

2011ko Arrain Azokan, Bermeon gertatzen ari den fenomeno baten berri izan genuen, Eneritz Artetxeren eskutik. Izan ere, berak, orain dela urte bete inguru, Kalinpan ezagutu zuen. Elkarrekin ibili ziren kalinpan, kalean gora eta kalean behera eta, harrezkero, fenomeno polita ikusi eta entzuten da Bermeoko kaleetan.

Edonon eta edonoz asmatzen da euskara kalinpan, dendetan, kirolean, enpresa eta sindikatueta, elkarte eta txokoetan... Kalinpan non, euskara han.

Eta gertakari hori herrian zabaltzen ari dela ikusteko, hona hemen 2011n euskararen aldeko konpromisoa hartu duten eragile guztiak. Aurten 96 eragilek sinatu dute konpromisoren bat edo beste euskara gehiago erabiltzeko:

ELKARTEAK ETA TXOKOAK

- Adiskide txokoa
- Alkartasuna dantza taldea
- Barrueta
- Batun batun
- Bermeoko abesbatza
- Bermoko irrintzilariak
- Berton
- Besalde
- Ehiza, arrantza eta tiro elkarte
- Erroxape
- Euskeraz berbetan
- Haitz Nagusije
- Itsuki irratia
- Izaro abesbatza
- Kankinkabara txistulari taldea
- Kilin Kolan txokoa
- MB 2000
- Takon txokoa
- Demiku
- Sareginek

KIROL-ERAGILEAK

- Artza pilota
- Arraun elkarte
- Bermeoko futbol taldea
- Izaro Sub taldea
- Taraska atletismo taldea
- Txirindulari taldea
- Sollube 707
- Arizatxu triatloi taldea

ENPRESAK ETA SINDIKATUAK

- Bankoa
- BBK
- Bermeoko kafe antzokia
- Busturialdeko hitza
- ELA
- LAB
- Euskadiko Kutxa
- Serrats
- Tiki-taka
- Amaia bidaiak
- Eroski bidaiak
- Halcon bidaiak
- Bermeo autoeskola
- Barri autoeskola
- Excursiones Tuñez Sanchez
- Eskala abokatuak
- Maria Atela klinika podologikoa
- Artprint
- Sollube autoeskola
- Osasun bulegoa
- Amaia podoklinika
- M^o Carmen podoklinika
- Justo Agirre Legarreta okulista
- Alberto eta Maria Ugedo Urruela mediku estomatologoa

TURISMO-ERAGILEAK

- Aldatzeta ostatua
- Artza Jatetxea
- Atuntxo bidaiak
- Almikeko eta Mañuko aterpetxeak
- Arrizurieta landetxea
- Hegaluze bidaiak
- Kasa Barri Nekazalturismoa

MERKATARIAK

- Aintzane loradenda
- Amaia Zubiaga ileapaindegia
- Anaiak harategia
- Arantza San Pedro
- Argi
- Ariana lantzeria
- ATMA
- Barren mertzeria
- Baserri harategia
- Bastarre abereen klinika
- Batun-batun
- Belalamera bitxitegia
- Bermeo inbiliaria
- Geuzetxuek
- Goiara
- Itugar oinetakoak
- Izarzugaza harategia
- Karinkara
- Kikuke
- Komolamo
- Landabaso harategia
- Aintzane liburudenda
- Lorak loradenda
- Lukander
- Luma liburudenda
- Maritere arrandegia
- Miss TPT's bitxiak Mosolo
- Toba frutadenda
- Tonini
- Txalintxu
- Uranga okindegia
- Uranga okindegia il-forno
- Urresti keramikak
- Zi or bitxitegia
- Zubigane



Eragileetako batzuk Arrain Azokako ekitaldira gerturatu ziren fenomenoaren berri izateko eta Eneritzekin batera Kalinpanen abestia kantatzeko.

KALINPANEN KANTA - ENERITZ ARTETXE

*Kalinpin eta kalinpan
goian, behean, hemen eta han;
lata honetatik ataniko berbak
barre dira zure ezpanetan.*

*Kalean gora eta kalean behera
lagun zaharrak lez
han, edozertan
ni neu behintzat
haren ondoan banago
kalean ez nauzu harrapetan.*

*Kalinpin eta kalinpan
goian, behean, hemen eta han
lata honetatik ataniko berbak
barre dira zure ezpanetan.*

*Txorroporroa, berbalapikoa,
berbalaguna ta lamina da
edan edaizu, edaizu edan
ondo dator izerdi-lamatan
kale afana asetuko dauen
edabe magikoa Kalinpan.*

*Kalinpin, kalinpan, kalinpin pan pun punpanpinpan
Kalinpin, kalinpan, kalinpin pan pun punpanpinpan*



BIKAIN EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA

Udalak euskararen normalizazioan egiten duen lana aitortzeko agiria lortu nahi du. Zenbait arlotan ebaluatuko da lan hori, hala nola, komunikazioa eta irudia, kanpoko eta barruko harremanetako hizkuntza, euskararen erabilera orokorrean...

Euskararen normalizazioan egindako bide luzea eta emankorraren errekonozimendua lortu gura da kalitate ziurtagiri honen bitartez. Era berean, zer hobetu behar den jakingo da ebaluatzaileek egingo duten azterketaren arabera.



FACEBOOKEN GAUDE

Bermeoko euskera sailaren berri freskoak jaso nahi badituzu, Facebooken baliatzen zaitezke. "Euskera saila Bermeo" idatzita, gonbidapena bidali eta lagun egingo zaitugu.

Kalinpanek ere kirol-ekitaldien berri ematen digu hilabetero. Kalinpanen lagun izateko "Kalinpan ibili" idatzi.



KONTSEILUAK EGINDAKO UDALEN HIZKUNTZA POLITIKEN NEURKETA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bigarren aldiz neurtu ditu udalaren hizkuntza-politikak. 2006an egin zen lehen neurketa eta ziklo politiko osoa igaro ondoren egin du bigarrena, 2010ean. Aztertutako 66 udalerrietatik lehenengo postua lortu du Bermeok, hizkuntza politikaren garapenaren alde egiten duen ahaleginagatik. Kontseiluaren ustez, Bermeoko Udala hizkuntza politikaren planifikazioan eredu garria da.

Hemendik aurrera, erakunde horien guztien ilusioarekin eta ahaleginarekin, euskararen etorkizuna marraztu ahal izango dugu. Ekitaldian, euskararen etorkizuna marrazten lagunduko diguten kolore guztietako margoak gordetzeko arkatz-ontzia banatu zitzaizaien parte-hartzaileei.

Bertan gordetzen diren arkatz, margo eta errotulkiekin gauza asko egin daitezke:

- Webguneak euskaratu
- Facebooken eta twitterren euskarazko profilak sortu
- Publizitatea euskaraz banatu
- Euskarazko ahozko harremanak indartu
- Banketxeei euskarazko zerbitzua eskatu
- Euskarazko animo-oihuak bota...

**Margoztu
gugaz
euskararen
mila koloreak!**

